

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuaren arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa da hainbat eragilerekin elkarlana eta sare sendoa sortzea. Jaietako esperientzia turistiko eta komertzial integrala eskaintzeko, ondoko erakunde eta enpresekin aliantza estrategikoak garatuko dira:

Udal eta turismo bulegoak

Tokiko festetako informazio zuzena, eguneratua eta fidagarria lortzeko funtsezkoak dira. Haien bidez jaien egutegia, tradizio bereziak, segurtasun neurriak eta bisitarientzako gomendioak koordinatu daitezke. Udalekin elkarlana egiteak proiektuaren sinesgarritasuna eta eragin komunitarioa handitzen du.



Komunikabideak eta sare sozialetako eragileak:

Gure zerbitzua ezagutarazteko ezinbestekoak dira. Prentsarekin, irratiekin, telebistekin eta sare sozialetako influencer edo eduki-sortzaileekin elkarlanean aritzea lagungarria da erabiltzaile gehiago erakartzeko eta proiektuaren ikusgarritasuna handitzeko. Halaber, kanal hauek erabiliko dira publizitatea, kanpaina bereziak eta sustapenak zabaltzeko.



Garraio-enpresak:

Herrietako edo hirietako jaietara joaten diren erabiltzaileei pakete bereziak, deskontuak edo bidai konbinatuak eskaintzeko aukera emango dute. Trena, autobusa, hegazkina edo alokairuzko ibilgailuak barne hartzen dira. Horrela, bisitariek esperientzia eroso, azkarra eta planifikatua izango dute, eta guk gure zerbitzuaren balioa handituko dugu.



Turismoarekin, jatetxeekin, ostatuarekin eta zerbitzu osagarriekin loturiko enpresak:

Festen inguruan ez ezik, bidaiariaren esperientzia osoa bermatu nahi da. Horregatik, hotelak, ostatu etxeak, jatetxeak, tabernak, tokiko ekoizleak, merchandising sortzaileak eta aisialdiko enpresak ere aliatu garrantzitsuak izango dira. Haiekin batera, erabiltzaileei pakete integratuak, esperientzia gastronomikoak, eta zerbitzu pertsonalizatuak eskaini ahal izango zaizkie.

